

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2008	P4/2011	2011/05/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

Ebazpena: P 4/2011

Espedientea: 16/2008

Gasteizen, 2011ko maiatzaren 2an

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidenteak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak, honako

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurka aurkeztutako eskumen gatazkan, zeinetan auzia baita ebaztea bi administrazioetatik zein den eskuduna (ENTITATEA), S.L., IFZ: ----, sozietateak Aldundiari eskatu dion ss.sss,ss euroko saldo negatiboa itzultzeko, hain zuzen ere 2006ko BEZaren urteko aitorten-likidaziotik eratorritakoa. Arbitraje Batzordeak 16/2008 espediente zenbakiaz tramitatzen du gatazka hori.

I. AURREKARIAK

1. 2008ko abenduaren 22an emandako R 4/2008 Ebazpenaren bidez Arbitraje Batzorde honek erabaki zuen "16/2008 gatazkaren tramitazioa etetea EIABEko 9. artikuluan aurreikusita dagoen oztopo prozesala desagertu arte".

2. 2011ko martxoaren 21ean sarrera eman zitzaion Arbitraje Batzorde honen erregistroan urte horretako martxoaren 17an (ENTITATEA), S.L. sozietatearen ordezkariak aurkeztutako idatziari, zeinarekin batera fotokopiatuta erantsi baitzen 2010eko uztailaren 12ko 493/10 Epaia, 1156/08 administrazioarekiko auzi errekurtsioan emandakoa. Idatzi horretan sozietateak inplizituki adierazten du Arbitraje Batzordeak bere aurreko erabakian aipatzen zuen oztopo prozesala desagertu denez, zilegi dela gatazkaren tramitazioarekin aurrera jarraitzea eta organo honek gatazka ebaztea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2008	P4/2011	2011/05/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak, abenduaren 28ko 1.760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartuak, zeina oinarria izan baitzen aurrekarietan aipatutako erabakia hartzeko, honela xedatzen du 9. artikulua bigarren paragrafoan: “Ez da inola ere aurkeztu ahal izango gatazkarik justizia-epaitegien aldetik jada ebatzita dauden edo oraindik ebatzteke dauden gaiei buruz”.

2. Hala ere, Justizia Auzitegi batek epaia eman izanak berekin dakar ez bakarrik erabakizun dagoen prozesua amaitzea, baita auziaren funtsa behin betiko ebatzita geratzea ere, eta haren aurrean Arbitraje Batzordeak ezin du beste ezein jarduketarik egin.

3. Beraz, zilegi da erabakitako etenaldia bertan behar uztea eta espedientea artxibatzea.

Honenbestez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

2008ko abenduaren 22ko R 4/2008 Ebazpenaren bidez 16/2008 espedientean erabakitako etenaldia bertan behera uztea eta espedientea artxibatzea.